

ZANTZO BAT



Irurogei urtean etziran ikusi
 Gaztetako lagunak Lorentzo ta Pachi;
 Non da San Antonioz Urkiolan aurten
 Uste uste bagarik alkar dabe ioten,
 Eta diñotsa laster batak besteari:
 —Lorentzo aguratu egin az oso i
 ¿Zertatik buru ori egin iak zuritu?
 Edurpean duala ein leikek siniztu.
 —Mutill, ni sartu banok i ago gazterik,
 Oraindiño ulea dok iaio bagarik;
 Ta arek urten artean beti az umea,
 Deitu arren ienteak *Pachi agurea*,
 ¡O! nik izan banaio ire *suertea*,
 Urteak euki arren nintzoan *gaztea*:
 ¿Zelan egin iaikent *Pachi buru argi*
 Edurrezko chapel au betiko erantzi?
 ¿Ainbeste aguratu ein badok Lorentzo
 ¿Zeiñek gorago egin gura dok gaur zantzo?
 Orduan geratu zan Pachi mututurik,
 Ienteen barreakaz lotsaz gorriturik;
 Eta Lorentzo chaloz eben zeruratu,
 Ta aren zantzoak eban Urkiola gortu.
 ¿Zelan ikusten dirait *besteren buruan*
Urteak oi dabena egiten munduan!
Norberenean bere eiten dabe bardin,
Denporeak guztioi oi deusku eragin.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

